



*Euskal Hiztegi Historikoa: Erdi Aroa eta Aro Modernoaren azala (Murgil taldea, 1987).
Jatorria: Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia-Gipuzkoako Foru Aldundia.*

Gordailu argitaletxea (1976-1987) izen bereko irakasle elkarteak sortu zuen Frankismo amaieran, ikastolen zabalkunde betean, euskararen eta berrikuntza pedagogikoaren alde egindako lanak gizarteratzeko.

Gordailu irakasle elkarteak 1960ko hamarkadaren amaiera aldera sortu zen, ikastoletan berrikuntza pedagogikoaren alde egiten ari ziren lanak uztartzeko. Frankismoan erabateko nagusitasuna zuen eskola eredu tradizionala atzean utzi eta pedagogia aktiboen aldeko apustua egin zuten, Freinet, Freire edo Montessori bezalako pedagogoen ildoan. Haurrak hezkuntza prozesuaren erdigunean jartzea zen helburua; euren motibazioa eta interesa sustatzea, edukiak buruz ikasi beharrean, euren kabuz erantzunak bilatzen ikas zezaten.

Horretarako, lehenetsua eman zioten irakasleen prestakuntzari eta euskarazko material egokiak prestatu eta zabaltzeari. Irakasleen bilgune bilakatu zen Donostiako Bergara kaleko bulegoa, eta biltegi, liburutegi eta multikopista zerbitzuak ere antolatuta zituzten. Argitaletxe bihurtuta, irakaskuntzaren alorrera bideratutako liburu eta materialak argitaratu zituen Gordailuk: metodologia eta pedagogia liburuak, hiztegiak, Oinarrizko Hezkuntza Orokorretarako irakurgai eta ikasliburuak, eskolaurrerako

materiala, mapak edota monografiak lau sailetan: gizarte eta natur zientziak, historia eta geografia.

Gordailu: pedagogi aldizkaria ere argitaratu zuen elkarteak, pedagogiaren inguruko gaiak ikuspegi berritzaile batetik gizarteratu zituen aldizkaria. 1970 eta 1973 artean argitaratutako hemeretzi aleak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan daude eskura, Pako Eizagirrereren dohaintzari esker.

Irakasleen prestakuntzari dagokionez, eta Kataluniako Rosa Sensat bezalako mugimenduen laguntzaz, hainbat ikastaro antolatu zituen Gordailuk; baita egoitza edo erresidentziak ere, andereñogaiak trebatzeko, hizkuntzaren nahiz pedagogiaren aldetik. Ikastoletako haurrentzako udalekuak ere antolatu zituzten.

Frankismo amaierako testuinguru gatazkatsuak, baina, maiz oztopatu zuen Gordailuren lana. Garai hartan euskal kulturgintzan jardun zuten gainerako eragileek bezala, erregimenak ezarritako hainbat trabari egin behar izan zion aurre: zentsurari, bulego miaketei eta materiala argitaratzeko edota ikastaroak antolatzeko jarritako bestelako eragozpenei. Baita arazo ekonomikoei ere. Baina maiz zaildu zuten bidea ikastolen mugimenduaren baitan sortu ziren barne-eztabaida politiko eta ideologikoek ere. Faktore horien guztien eraginez, indarra galduz joan zen Gordailu 1980ko hamarkadak aurrera egin ahala, eta argitaletxeak 1987an utzi zion liburuak argitaratzeari.

Izaro Arroita Azkarate
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Bibliografia

- BENGOETXEA, Antonio. “Gordailu”, *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/gordailu/ar-67526/> [2018ko azaroaren 20a].
- DAVILA BALSERA, Paulí. “La renovación pedagógica en el País Vasco (segunda mitad del siglo XX)”, *Sarmiento* (2005), 9, 85-103 or.
- DELGADO CENDAGORTAGALARZA, Ander. “Gordailu y la renovación pedagógica en el País Vasco. Política y educación en el tardofranquismo”, *Aula* (2016), 22, 189-203 or.
- “Gordailu (argitaletxea)”, *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*, <http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=Gordailu1> [2018ko azaroaren 22a].
- “Gordailu: Irakaskuntz Kontutan Jakintsu Eta Jator”, *Argia*, 1982ko martxoaren 28^a, <https://www.argia.eus/argia-astekaria/928/gordailu-irakaskuntz-kontutan-jakintsu-eta-jator> [2018ko azaroaren 22a].
- “Gordailu: pedagogi aldizkaria’ (1970-1973)” (2013), <https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/komunikazioa/plazaberri/4141-gordailun-pedagogi-aldizkaria-1970-1973> [2018ko azaroaren 22a].
- SETIEN, Jaxinto F. “Gordailu eta euskal pedagogia”, *Jakin* (1979), 11, 105-110 or.

Dokumentu hau aipatzeko: Arroita Azkarate, Izaro (2019). “Gordailu argitaletxearen (1976-1987) soslaia”. In *MHLI-Memoria Historikoa Literatur Iberiarretan* URL: <https://mhli.net/artxiboa/gordailu-argitaletxea/>